



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2007-12-07

V.URTEA 1.307.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Sven Nys-ek bere 200. garaipena lortu du ziklokrosa irabazita

**ASTEASU** Flandestarrak aurreikuspenak bete zituen; Vanthourenhout bigarren izan zen eta Simunek hirugarren

**EUSKALDUNAK** Lehena helmuga igarotzen Unai Yus izan zen; eliteko nesketan, berriz, Jone Mujikak irabazi zuen s



Sven Nys flandestarra izan da garaile Asteasuko IX. Nazioarteko Ziklokrosean. ESTI EZEIZA

**Eskualdeko ordezkarientzat Zientzia Astea arrakastatsua izan da**

**TOLOSALDEA** Pasa den hilean ekitaldi ugari egin zituzten Tolosaldea institutukoek 2



Herenegun erre zuten. HITZA

**Udaletxeko Espainiako banderari su eman diote**

**LIZARTZA** Otaolak «bandera berriro jarriko dut», esan du 5

## Ainara Ugartemendia eta Maitane Sorron, aurtengo Kutxa sariaren irabazleak

**TOLOSALDEA** Espediente onenaren saria jaso dute; albizturtarrak 8,97ko media izan du eta Hernialdeko neskak, berriz, 8,39koa 24

# Kimetz

Mutil arropa  
Kale Nagusia 13  
943 24 94 96

Neska arropa  
Kale Nagusia 21  
943 67 38 62

www.kimetz.eu

## Euskararen egunak



### » Kale kantoitik

Joxemi Saizar

**E**uskararen Eguna izan dugu aste honetan. Euskararen egun asko izan dira aste honetan bertan. Hasteko, harrigarria egin zait ikastetxez aparte ekitaldi bakarra etorkinen elkarteak antolatzea. Txalo beroa Ereiterentzat, integrazioaren aldeko lan handia ari da egiten. Baina, non zeuden herriko beste elkarte eta erakundeak?

Joan zen ostegunean Hegoamerikako zenbait hizkuntza gutxituen ordezkariak bere egoera azaldu ziguten Errotan: hiztun eta erabiltzaile gutxi, prestigio sozial eskasa, presentzia gutxi ikastetxe eta komunikabideetan, administrazioaren onarpen eza, hizkuntza batuaren falta... Hemengo egoera duela 40 urte. Nahiz eta normalizazioa ez iritsi, euskarak eman dituen aurrerapausoak agerian utzi zizkiguten lagun maputxe, ketxua, maya eta aimarek. Euskararen beste egun bat.

Handik bi egunetara, mahai-inguru hori entzuten lehen ilaran zeuden bi pertsona heldu Usabalgok kiroldegian jendaurrean kantuan ikusteko aukera izan genuen. Laskorain Ikastolaren sortzaileetako bi ziren. Bi egun lehenago entzundakoez eta bi egun beranduago ikusitakoez ez zuten zerikusirik. Bi egunetan 40 urte aurreratu zuten. Euskara alorrean. Urte horietan egindako lanaren fruitua jasotzeko aukera izan zuten. Primerako ikuskizuna erakutsi zuten ikasleek, ikasle ohiek, irakasleek, gurasoek, zuzendariak, sortzaileek... Barneko produktua erabat (Natxo de Felipe zen kanpotar bakarra), baina ez gordina, oso landua baizik. Musika, poesia, dantza, hitza, antzerkia osagaiak. Ametsa, emozioa, ilusioa emaitza. 1.400 pertsona hunkitzea lortu zuten. Bukarero abesti ederrak zioen bezala: "Halaxe eman itzazu beste berrogei urte". Euskararen beste egun bat.

Giro sozio-politikoan, ordea, aurrerapausorik ez.

**@ Inkesta.** Abenduaren 16an Donostiako 11nben jokatuak duten Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa finalean Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze eskualdeko bertsolariak izango dira. Bietakoren bat izango al da irabazle? Eman zure iritzia.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

Aurtengo Zientzia Astea dela eta, Tolosaldea Institutuko ikasleek ekitaldi asko egin dituzte eta gainera Jimmy Wales, wikipedia webgunearen sortzailearen hitzaldian egon ziren.

# Zientzia aste arrakastatsua



Tolosaldeko Institutuko Sistema Informatikoen Administrazioako zikloko ikasleak Jimmy Walesek Gasteizen eskaini zuen hitzaldian. HITZA

### HARRIET BELLOSO

**A**urtengo Zientzia Astea ekitaldi eta sorpresaz beteta egon da Tolosaldea Institutuko Sistema Informatikoen Administrazioako ikasleentzat. Hasteko, Jimmy Wales, Wikipedia webgunearen sortzailearen hitzaldian izan ziren eta bi egun beranduago Bilboko Arriaga antzokira joan ziren Xabier Eskisabel

ikasleak irabazitako sari garrantzitsu bat jasotzera.

### Wikipediaren sortzailearekin

Azaroaren 5ean, Gasteizko Parke Teknologikoan, Jimmy Wales Wikipediaren sortzailearen hitzaldia izan zen. Munduaren eza-gutzaren hedapenari eta Interneten egoerari buruz mintzatu zen denbora luzez. Juan Jose Ibarre-

txe lehendakaria eta Pedro Luis Uriarte BBVAko presidenteordea hitzaldian izan ziren ere.

### Institutuko ikasle bat saritua

2007ko Zientzia Astean berrikuntza asko egon dira. Horietako bat Wikipedia lehiaketa izan da. Bertan kategoriatan asko egon dira eta Institutuko ikaslea den Xabier Eskisabel beasaindarrik sari nagu-

sienetariko bat lortu du, webgune horretan euskaraz sartutako zientziari buruzko artikulu onenarena, hain zuzen ere. Bere lana Web 2.0 buruzkoa izan da.

Pasa den hilean Bilboko Arriaga antzokian izan zen sari banaketa eta Xabier institutuko zenbait ikasle eta irakasleekin izan zen bertan. Ekitaldi horretan Bilboko alkate Iñaki Azkuna egon zen.

## «Idazten jarraitzeko asmoa daukat»

**XABIER ESKISABEL** » Wikipedia lehiaketaren garailea

**Teknologia** » Zientzia astearekin batera antolatutatu den lehiaketa irabazi du Web 2.0ri buruz euskaraz eginiko lanarekin.

### H. B.

2007ko Zientzia Astea dela eta, Wikipedia webguneak zientziari buruzko artikululu lehiaketa antolatatu du eta euskaraz idatzitako saillean garailea, Xabier Eskisabel Tolosaldea Institutuko ikaslea, izan da. Berarekin hitz egin dugu bere sentsazioak jakiteko.

### Zeri buruz hitz eginen duzue zure artikuluan?

Web 2.0 terminoari buruz jardun naiz. Wikipediaren euskarazko atalean zegoen informazioa urria zelako, eta oinarrian une honetan Interneten pil-pilean dagoen kontzeptu bat delako, alegia, Web 2.0 kontzeptuaren atzetik Interneten erabiltzaileari zuzenduriko tresna bezala kontuan hartzen den lehenaldia delako. Partaidetza, sare so-



Xabier Eskisabel Bilbon ospatu zen sari banaketan. HITZA

zialak, blogak, erabilerraztasuna... Artikuluan Web 2.0 kontzeptuaren sorrera azaltzearekin batera, bere atzean dauden teknologiak eta Web 1.0 deitzen zenarekin dauden aldeak azaltzen ditut. Azkenik, kontzeptu honekiko atxiki-tzen diren euskal tresna eta zerbitzuak lerrokatzen ditut: *Tagzania*, *Sustatu*, *Zabaldu*, *blogak.com* eta *euskaltube.com* adibidez.

### Zaila izan al da horrelako gai bati buruz euskaraz idaztea?

Euskaraz idazteagatik, ez du zertan zailagoa izan. Euskara azken finen hizkuntza bat baino ez da, eta Web 2.0ri buruz idazterakoan, berdin dio euskaraz, ingeleraz, alemanez edo aymaraz idaztea. Idazkuntza bat menperatzeko edota hitz egiteko zailtasunak izango

ditu artikulu bat idazterakoan. Agerikoa da.

### Ze sentitzen du zuk idatzitako artikulu bat Wikipedian dagoenean?

Nik egin dudana beste erabiltzaile batek hobetu, osatu edo zuzentzea duen unetik, Wikipediako erabiltzaile bezala nire aportazio xume bat egin dudala, besterik ez.

### Saria dela eta, idazten jarraitzeko asmorik duzu?

Bai noski, astero ekarpen edo zuzenketaren bat eginen dut Wikipedian ikusten dudana artikuluren batean.

### Wikipediak antolatutako txapelketa bat irabazi duzu Web 2.0 buruzko euskaraz eginiko artikulu batengatik. Jende askok «Freaky» bat zarelako pentsatuko du seguruenik, zein da zure iritzia honi buruz?

Beasaindarra izanik, Beasaingo Odolkariaren Kofradiako trikipanderero-folklorikoak eta beraien piura patetikoak zuk deritzozun «freaky» direla esango nizuke.



Ehun urte baino gehiago duten makinak erabiltzen dituzte txapelak egiteko. HARRIET BELLOSO

1858. urtean sortu zen Boinas Elosegui, baina mende bat baino gehiago pasa izan den arren, hasierako printzipioetan oinarrituz txapelaren ekoizpen prozesu gehiena eskuz egiten jarraitzen dute.

## Historiaz beteriko enpresa

HARRIET BELLOSO

**T**xapelak garrantzi asko du euskal ohituran, baina Euskal Herrian baino lehen, beste leku batzuetan hasi ziren erabiltzen. Danimarkako Guldhoi herrian, Kristo Aurreko 1000. urteko garaiko hilobi batean, artilezko txapel bat zuen gorputz bat aurkitu zen. Goyaren koadro batzuetan adibidez txapela daramatzen pertsonak azaltzen dira. 1920 eta 1930 urte bitartean Hollywooden asko hedatu zen txapelaren erabilpena. John Huston eta Billy Wilder zuzendari ospetsuak txapela «modan» jarri zuten Estatu Batuetan.

Gipuzkoan eta Nafarroan txapelaren lehen arrastoak XVII. mendekoak dira. Mota desberdinetako txapelak dituzten irudiak aurkitu dira Isaban eta inguruko eraikinetan. XIX. mendeko independentzi gudan, euskal gerrillariak jantzi bereizgarri honekin borrokatu zuten. Gerra Karlistetan aldiz, txapela soldadu guztien uniformearen barnean zegoen, baina txapelari ospe gehien eman zion pertsonaia Zumalakarregi generala izan zen bere Txapelaundiarekin.

Euskal Herrian ez ezik, gaur egun txapela firme mantentzen da Espainiako iparraldean. Asturiasen eta Aragoian oraindik asko erabiltzen da, batez ere nekazal guneean. Baita Galizian ere. Frantzia ere asko erabiltzen da, Paris eta Aquitania inguruan gehien bat. Herrialde honetan txapelaren proiektzio internazionalari bultzada bat eman nahi izan diote. Rene

Lacoste tenisleriak txapelketa guztietara txapelarekin joaten zen.

Che Guevara, Jorge Oteiza eta Pio Baroja bezalako pertsonai garrantzitsuek txapela erabili zuten.

### Enpresa garrantzitsua

Boinas Elosegui enpresa Antonio Elosegui sortu zuen 1858. urtean. Hasiera batean *La Casualidad* izena jarri zion eta Ori ibaiaren ondoan jarri zuen fabrika. Egunean 50 unitate egiten ziren soilik, baina 1915ean, 3.500 egitera pasa ziren. 200 pertsonak egiten zuten lan eta txapelak munduko leku askotan saltzen hasi ziren, adibidez Hegoamerikan eta Estatu Batuetan.

Urte batzuk beranduago lantokia Usabalen ezarri zen. Langile kopurua murriztu eta teknologia berrietara egokitzea behartuak ikusi ziren enpresako buruak.

Gaur egun 30 pertsonak egiten dute lan Boinas Elosegui, eta urtearen zehar 200.000 txapel ekoizten dira. Txapel zibileko produktzioan mundu mailako enpresarik garrantzitsuenetarikoa bat izaten jarraitzen du, nahiz eta Txina eta Koreako enpresen igoera nabarmena izan den. Produktuen kalitatea eta lan egiteko modu tradizionalak proiektu hau mantentzea lortu dute. Txapelak egiteko prozesu guztia fabrika bertan egiten dute, hori egiten duen enpresa bakarra izanik.

Ekoizpenaren %90a txapelak dira. % 58a txapel zibilak dira, eta % 32a, militarrik. Biseren produktzioa % 6koa da, eta geratzen den %4a burukoena da. Euskal He-

rrian ospatzen diren txapelketa askotan Boinas Elosegui txapelak ematen dira sari bezala, eta «txapel-dun» izena daukate. Argentinako puntu batzuetan kaletikan joateko erabiltzen dituzte ere. Produktu gehienak Espainian saltzen dira, baina munduko beste puntu batzuetan Elosegui produktua ikusi daitezke ere. Azken hamarkadan Asian eta Afrikan txapelak saltzen hasi dira.

### Ekoizpen prozesu luzea

Txapelak egiteko elementu garrantzitsuena artilea da. Mundu guztian zehar gehien erabiltzen

den ehuna da. Material eroso, beroa, elastikoa eta malgua da, eta edozein gorputzetara molda daiteke. Kalitatezko txapela egiteko baldintza onean dagoen artilea behar da. Lanerako materiala aukeratzeko onean lau irizpideetan oinarritzen dituzte: luzera, kolorea, diametroa eta erresistentzia.

Diametroak garrantzi handia du, artilea zertarako erabiliko den eta salneurria ezartzeko balio du. Artile mehea kalitatezko arropak egiteko erabiltzen da. Boinas Elosegui txapelak material honekin egiten dira adibidez. Luzapekin eragin zuzena du prozesu in-

dustrialean. Bi iruntze sistema daude, kardatua eta orrazkera.

Kalitatezko artilea den jakiteko erresistentzi asko izan behar du. Industrian erabiltzeko artilearen gutxiengo erresistentzia 8,5 gramokoa izan behar du. Eguraldia eta animalia ekoizlearen elikadura

### Boinas Elosegui ekoizpen prozesu gehiena eskuz egiten dute, teknologian aurreratuak izan arren

asko nabaritzen da artilearen nolokotasunean. Garbitu eta gero materialaren kolorea oso txurria bada, lan egiteko onean kolore gehiago erabil daitezke eta kolore ugariekin ehundu daiteke.

Nahiz eta teknologian aurrerapen nabariak eman diren, Boinas Elosegui oraindik ekoizpen prozesu gehiena eskuz egiten da. Lanerako erabiltzen diren makinak urte asko dituzte ere. Ehuntzeko teknologia zaharreko zortzi makina erabiltzen dira, eta berrikoak aldiz, zazpi.

### Konpetentzia gogorra

XX. mende hasieran, Boinas Elosegui enpresarik nagusienetarikoa bazen. Baina une honetan egoera ez da hain pozgarria. Urtean 700.000-800.000 txapela inguru ekoiztetik 160.000 ekoiztera pasa dira. Txapelak ekoizten dituzten enpresen arteko lehia oso gogorra da.

Merkatuan bilakaera bat eman da. Asiako enpresetan gastu laboralak askoz urriagoak dira, eta gainera beste zenbait herrialdeetan txapelak egiten hasi dira.

Ohitura aldatetak ere kontuan eduki behar dira. Duela 50 urte, txapelaren erabilpena oso hedatua zegoen. Lehen ileak erortzen hasten zirenean burua estaltzeko erabiltzen zen. Egun, ordea, oso jende gutxi ikusten da txapelarekin, eta ikusten direnak oso helduak dira.



Gaur egun oraindik txapelak egiteko prozesu gehiena eskuz egiten jarraitzen dute. HARRIET BELLOSO



# Batzuentzat jai eguna, eta besteentzat aldarrikapeneko

**Konstituzio Eguna** » Amezketan auzolana egin zuten goizean eta Lizartzan udaletxeko Espainiako bandera erre zuten

## ERREDAKZIOA

Espainiako Konstituzioaren Eguna izan zen atzo eta Tolosaldeko hainbat negoziok eta langilek lanean jardun zuten. Amezketan egun berezia izan zen bi arrazoiengatik: aldebatek Amezketako Gazte Taldearen 10. urteurrena ospatu zuten eta bestetik, Espainiako Konstituzio Egunari «uko egin» herrirako lanean aritu ziren herritar batzuk.

Amezketako hainbat txoko gar-

bitu zituzten, eta ondoren bazkaria egin zuten Zazpi-Itturri elkarrean.

**Lizartzan udaletxeko Espainiako bandera erre zuten** Herenegun gauean Lizartzan su eman zioten Udaletxean eskegita egoten den Espainiako banderari: HITZARA heldu zen idatzi baten bidez, talde batek bere gain hartu du herenegun gauean gauzatutako ekintza. Bertan, Lizartzako Udaletxean eskegita zegoen Espainiako banderari su eman zioten.

Ekintzaren egileek azaldu bezala, «Lizartzan, espainiar faxistek okupatua duten Udaletik bandera espainiarra desagertarazi dugu». Honekin, «Euskal Herriaren izatea ukatzen duten faxistei» mezu



Goian, Espainiako bandera sutan. Beheran, amezketarrak auzolanean. HITZA

hau bidali nahi izan diete: «Hau ez da Espainia, ez eta Frantzia ere. Hau Euskal Herria da. Zuen banderak arrotzak dira hemen. Herri honek erabakiko du zein ikur eta bandera jarri».

*Espainiar konstituziorik ez, Independentzia bai!* lelopean, Lizartzako herriak gaur egun «faxista

espainolez» osatutako Udala dela agintean salatu dute, «beste hainbat herritan gertatzen den berarekin». Honen harira, «abenduaren 6a, inposaturiko eguna» dela uste dute: «Euskal herritar gisa ditugun eskubideak zanpatzen dizkigun konstituzio espainiarraren eguna; Euskal Herriaren aurkako eguna».

Hala, atzokoa bezalako egunetan, gogor oihukatzen dute, euskal herritarrek direla eta inposaketak gaindituz euskal herritarrek beraien eskubideen alde borrokan jarraituko dutela.

## Otaolaren salaketa

Honen aurrean Regina Otaola Lizartzako alkateak (PP) atzo, udaletxeko balkoian dagoen Espainiako bandera erre izana salatu zuen.

Otaolak ekintza hauek gaitzetsi ditu eta berriro ere Espainiako bandera jarriko duela adierazi du «egungo araudia betez». Alkateak «atzoko egunez baliatuz ez askatasuna ezta herritarren askatasuna eta hauen eskubideak babesten dituen konstituzioa ez dutela onartzen agerian uzten dutela» kritikatu du.

«PP ez da jende bortitzaren aurrean kikiltzen, ezta eraso koldar hauen aurrean ere. Hauek zigorra jasoko dute, ziur». Alkatearen ustez, «Espainiako bandera txanoa jantzita erretzen dutenek Raul Centeno eta Fernando Trapero-ren erailketak eta hiltzaileak txalotzen dutenak dira. Ekintza hauekin gizarte demokratiko batean lekurik ez duen hori ezarriahi dute, haien agindua».

## Laburrak

### Mendi federatu txartela egiteko epea zabaldu dute

**TOLOSA** » Oargi Mendi Elkartek mendi federatu txartela egiteko epea ireki du. Txartelak bai elkarrean eta bere blogunean egin daitezke. Elkarrean egiteko egunak astelehena, asteazkena eta osteguna dira, 19:00etatik 21:00etara. Hau da blog-a: <http://oargi.ordpress.com/2007/11/29/2008ko-federatu-txartela/>.

### Inmakulada Eguna dela eta, elizkizun bereziak

**TOLOSA** » Gaur 19:00etan eta bihar 11:00etan Inmakulada Eguna dela eta, elizkizun bereziak ospatuko dituzte Tolosako Santa Maria Kapera. Mezaren baitan Ander Letamendiaren zuzendaritzapean musika emanaldi berezia izango da: soka orkestrak eta koroak lau obra eskainiko dituzte, bai gaur eta bai bihar ere.

### Tolosaldeko bi akordeoi jotzaile Arrasatekoan

**MUSIKA** » Hauspoz Euskal Herriko akordeoi elkarrean antolatutako Arrasateko akordeoi lehiaketan Loatzo musika eskolako bi musikaririk hartu dute parte. Atzo Ane Urkola anoetarra eskusoinu atalean aritu zen eta gaur, Lore Amena-bar irurarra Gipuzkoako lehiaketan aritu da. Txapelketa hau etzi amaituko da eta Euskal Herriko akordeoi-jotzaile onenak entzun ahal izango dira.

# Gurasoen Topaketak lau hilabetez

**Tolosa** » 0 eta 16 urte bitarteko gurasoei zuzenduta daude eta izen-emateko azken eguna hilaren 21ean itxiko da

## ERREDAKZIOA

Tolosako Udaleko osasun eta gizarte zerbitzuak antolatuta Gurasoen Topaketak izango dira. Hauen baitan, teoria eta egunerokotasuna txertatu nahian, beti parte-hartzen duten aita eta amen interesak eta kezkek aintzat hartuta. Topaketa hauek 0-16 urte bitarteko seme-alaben gurasoei zuzenduta daude.

Ikastaroa lau hilabetetan zehar emango da eta denera 13 egun izango dira urtariletik apirila bitarte. Hizkuntzaren arabera bi talde egingo dira: bat euskarazkoentzat eta bestea gaztelarazkoentzat. Eskolak haur liburutegian emango dituzte eta matrikula 60 euro kostako da.

### Izen-ematea astelehenetik ostiralera

Izen-ematea Tolosako udaletxeko osasun eta gizarte zerbitzuetan egin daitezke 10:00etatik 13:00era bitartean astelehenetik ostiralera, ostegunetan izan ezik. Bestela, 943 69 74 60 telefono zenbakira deituta ere egin daitezke. Izena emateko epea hilaren 21ean bukatuko da. Hau egiteko garaian kontu korronteko zenbakiak eman behar-



Gurasoak ikastaro batean. M. SOROA

ko dute interesatuek, ordainketa helbideratu ahal izateko. Eskolen %80 baino gehiagotara joaten direnei 50 euro bueltatuko dizkiete. Bestalde, ikastaroen izena ematen dutenek haurtzaindegia erabiltzeko aukera izango dute, beti ere izena emateko garaian eskatzen badute. Dena den, plazak mugatuak dira eta Tolosan bizi direnek lehentasuna izango dute.

### Familia eredu ezberdinak kontuan hartuz

Antolatzaleek esan bezala, «familia bakoitzak bere izaera eta funtzionatzeko era du. Esate baterako, familiak sailkatzeko irizpide teoriko batzuk erabiltzen dira. Hori

dela eta, estilo autoritarioa, inkontsekuentea, permisiboa eta demokratikoa daudelako esaten da. Estilo horiek familien erradiografia orokor bat izateko baliagarriak izan daitezke, baina askotan, etiketatze eta bata ona eta bestea txarra dela esateko besterik ez dute balio izaten, eta hori ez da bere asmoa», azpimarratu dute.

Ikastaro hauen ordutegia arratsaldez izango da, 15:00etan hasita. 16:45a arte iraungo dute. Lehen klase eguna urtarrilaren 10a izango da, osteguna, eta astero hasiko dira izaten.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

- **Trikitixa.** Egoera onean dagoen trikitixa salgai. 669 67 36 49.
- **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean (Santa Klara). Bi logela, sukalde handia, ganbara eta berogailuak.

Hormigoizkoa. Ikuspegiak Uzturre aldera. 665 70 86 35.

### LANA

- **Zerbitzaria.** Ordiziako Herriko tabernarako zerbitzaria behar da. 943 88 75 98.

**LEABURUKO OSTATUA**

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea izan ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu  
Tel.: 943 67 15 48



**Pasus**  
Jatetxea • Edaritegia

- Eguneko menua
- Karta
- Dastatzeko menua
- Enpresa menuak
- Platerak eta razioak

Ernio bidea, 7 • Zuzurkil  
RENFE geltoki ondoan  
Tel.: 943 249 775  
[www.pasusrestaurant.com](http://www.pasusrestaurant.com)

# Sven Nys izan da garaile Asteasuko IX. Nazioarteko Ziklokrosean

**Asteasu** » Bere 200. garaipena erdietsi zuen Flandesgo txirrindulariak; euskaldunetan lehena, Unai Yus izan zen.

## ESTI EZEIZA

Aurreikuspenak beteaz, Sven Nys flandiarra izan zen garaile atzo Asteasuko IX. Nazioarteko Ziklokrosean. Joan den urtean ez bezala, eguraldi bikaina egin zuen atzo eta erakustaldi ikusgarria eskaini ahal izan zuten txirrindulariek. Hala, jende ugari bildu zen Eizmendiko zirkuitoaren erdian kokatuta zegoen karparen inguruan.

Ikusmin handia zegoen jende artean, egungo ziklokroseko txirrindulari onena zetorrelako, eta honek ez zien zaletuei huts egin. Antolatzaileen esanetan, «ohore bat izan da horrelako txirrindulari bat gurean izatea». Gainera, atzokoa flandesarrak lortzen zuen 200. garaipena zen. Bigarren postuan, eta irabazlea baino 44 segundo beranduago, Sven Vanthourenhout iritsi zen helmugara. Hiruga-

rren postua lortzeko berriz lehia handia egon zen, eta ia batera ailegatu ziren helmugara Simunek eta Page, baina azkenik, lehendabizi aipatutakoa gailendu zen.


Azpiarratzekoa da ere, euskal txirrindularien artean izandako lehia. Azken segundoko arte ez zen erabaki zein izango zen lehendabizikoa. Aski ezagunak diren hiruren kirolarien artean zegoen norgehiagoka: Unai Yus, David Seco eta Jabier Larrinaga. Azkenik gas-tzitarrak izan zen irabazle.

## Hiru mailatan lasterka

Hiru txanda ezberdinetan ateratu ziren txirrindulariak atzoko proban. Lehendabizikoa kadete neska eta mutilak korritu zuten. Hemen, nesjetabm Zalao Trebillo izan zen garaile, eta mutiletan, Oier Iraolagoitia. Eskualdekoei dagokionez, Tolosa CFko Irene Usabiaga hirugarren iritsi zen helmugara. Bigarren multzoan, junior neska eta mutilak ateratu ziren alde batetik. Bestetik, eliteko neskak lehiatu ziren. Hemen, mutiletan, Daniel Ruiz izan zen garaile, eta nesketan, Ana Usabiaga eta Jone Mujika.



Elite mailakoen arteko irabazleak, ezker-eskuin: Simunek, Nys eta Vanthourenhout txirrindulariak. NEREA URBIZU



Elite mailako lehen euskaldunak, ezker-eskuin: Seco, Yus, Larrinaga eta Izagirre txirrindulariak. NEREA URBIZU



Joan den urteko ibilbide bera egin behar izan zuten txirrindulariek, antolatzaileak gustura agertu ziren honekin. E. EZEIZA

## » ASTEASUKO IX. ZIKLOKROSA

### Sailkapena

#### Eliteko mutilak.

1. Sven Nys
2. Sven Vanthourenhout
3. Radomir Simunek
4. Jonathan Page
5. Constantino Zaballa
6. Christian Heule
7. Wesley Van der Lin
8. Unai Yus
9. David Seco
10. Javier Rz. Larrinaga

#### Eliteko neskak.

1. Jone Mujika
2. Saioa olite
3. Erkuden Almagro

### 23. urtez azpikoak.

1. Gorka Izagirre

#### Kadete neskak.

1. Zalao Trebillo

#### Kadete mutilak.

1. Oier Iraolagoitia

#### Junior neskak.

1. Ana Usabiaga
2. Amaia Martioda
3. Alba Diez

#### Junior mutilak.

1. Daniel Ruiz
2. Iker Arranz
3. David Idalgo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri  
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Kutxak espediente onenei sariak banatu ditu eta Tolosaldean bi gelditu dira: Ainara Ugartemendia albizturarentzat izan da bat, eta bestea Maitane Sorron hernialdearentzat. 8,3 eta 9 noten bitarteko emaitzak lortu dituzte ekonomiarekin lotutako ikasketak egin dituzten bi neskek: argi dute nota on hauek lortzeko (hau helburua izan ez bada ere) lan egitearekin lotu dutela.

## «Alferrik da esatea azkeneko mementoan bakarrik ikasi dudala, saiatua bainaiz»

**AINARA UGARTEMENDIA** › Kutxa sariaren irabazlea

**Albiztur** › Espediente onenei sarietan albizturarrak ekonomia eta enpresa zientzietako lizentziaturan onena du.

**N. URBIZU**

Albizturkoa da, eta enpresen administrazio eta zuzendaritza lizentziatura ikasi du Ainara Ugartemendiak (Albiztur, 1984). Gipuzkoako ekonomia eta enpresa zientzien lizentziaturako espedienterik onenari saria jaso du EHU.

**Pozik egongo zara, ez?**

Bai, oso pozik, ez nuen inondik inora espero. Banekien sariak-eta banatzen zituztela, baina ez duzu jakiten bestek zein notak ateratzen dituzten. Onentsuenetan ibiltzen naiz beti, baina nola horrenbeste talde egoten diren, ez nekien. Ez nuen espero.

**8'97 da karreraren bururututako zure ikasketen media. Asko ikasi duzu hau lortzeko?**



N. URBIZU

Benoa, nota onak ateratzeko aritu egin beharra dago: alferrik da esatea azkeneko egunean bakarrik ikasi dudala. Ez, arituta, noski. Saiatua naiz, beti hala izan naiz.

Zenbakien kontua gustatzen zait eta argi nuen hauekin zerikusia zuen ikasketaren bat egin nahi nuela, eta aukeratutakoa zen gehien hurbiltzen zena.

**Asko sakrifikatu behar izan duzu?**

Sakrifikatu adina ez nuke esango. Argi dago 5 urteko karrera bat ateratzeko ordu batzuk sartu behar direla: Gabonetan jendea kanpoan dagoen bitartean etxean urtarriko azterketak prestatu behar izan ditut. Baina sakrifikatu adina ez.

**Noizbait joan zara azterketa batera ikasi gabe?**

Ez, inoiz ez. Nahiago dut ez aurkeztu, ikasita joan gabe baino. Egia esan, ikasi bakarrik egin dut, eta ez zait burutik inoiz pasa. Ez zait inoiz lana pilatu, normalean ondo antolatzen dut denbora. Azken mementoan 24 ordu sartu beharrean denborarekin hartzen dut.

**Lortutako nota honekin lana errazago lortuko duzu?**

Jendeak hori esaten du. Nik ez dut hain argi ikusten, ikusi egin behar da. Curriculum bat aurkeztean nik uste dut baloratuko dutela.

**Zure hurrengo erronka zein da?**

Mementoz ikasketak, egia esan, uste dut lanean nahiago dudala;

ikasitako hori praktikan jarri nahi dut. Ikasitakoarekin bakarrik... teoria asko daukagu baina gero jakin behar da praktikan nola jarri. Oraingoz behintzat ikasketak hor geldituko dira.

**Karrera honetan ikasi duzuna nahikoa da lanean hasteko?**

Nire ustez enpresa munduko alor diferentek lantzen ditugu: kontabilitate, langileen kudeaketa... Baina esan bezala, teorikoki, gero praktikan jartzean desberdina

**«Argi neukan hasieratik zenbakiekin zerikusia zuen ikasketaren bat egin nahi nuela»**

izango da, errealtatea beste bat izango da. Ingelesa adibidez gehiago landu behar dut, eta horri helduko diot. Gaur egun enpresetan ingelesa oso garrantzitsua da, harremanetarako, esaterako.

**Txori batek perfektionista zarela esan dit...**

Gustatzen zait egiten dudana hori ondo egitea, alorguztietan. Ikasketetan bakarrik zentratu naiz, baina esan daiteke baietz.

**Txuleta bat zer den badakizu?**

Ez, ez [Barre artean!] Laister harapatuko lidakete, ez dut inoiz egin nire bizitzan. Segituan nabaritutako litzaidake, zuri-zuri jarriko nintzateke.

## «Ikasketa hauetako esperientziarik onena kanpora joatea izan da, Erresuma Batura»

**MAITANE SORRON** › Kutxa sariaren irabazlea

**Hernialde** › 8,39 da bere ikasketetako orain arteko media; kanpoan egoteak zentzu askotan asko irakatsi diola dio gazteak.

**N. URBIZU**

Maitane Sorron (Hernialde, 1986) enpresaritzako karrera ari da egiten Irunen (Arrasatek Kooperatibakoa), zehazki aurten 4. maila, 8,39 izan da bere nota.

**Nola lortzen da media on hori?**

Lanarekin eta umorearekin. Urduri jartzen baldin bazara, «ez dut egingo» esanez, gaizki. Han ibiltzen garenok umoretsu ibiltzen gara eta hori garrantzitsua da. Horrez gain, klasean 23 ikasle gaude eta irakasleen atentzioa zuzenagoa da: azkenean etxe bat da, oso eroso nago. Okerrena ikasketak gazteleraz egin behar izatea da, al daketa handia izan da eta gogorra da. Azalpenak euskaraz ematen dituzte, baina hitz teknikoak...

Ongi dago gaztelaniaz ere ikastea, baina euskaraz faltan botatzen dut. **Laugarren eta bosgarren mailan proiektua egiten duzue Irunen.**

Enpresa bat osatu behar duzu, ardua guztia zure gain dago, eta koordinatzaile baten laguntza daukagu. Hiru egunez klaseak ditugu eta beste bi egunetan proiektua landu behar dugu. Ingalaterran hori egin nuen, proiektua landu. Arazo baten aurrean soluzioa eman behar diozu, eta ez badu, hori ere arrazoitu egin behar duzu. **Karrera, beraz, gustukoa duzu?**

Bai. Hasieran arkeologia egin nahi nuen, ondoren historia eta azkenean enpresaritza. Kontabilitatea egin nuen batxilergo urte batean eta hori nire zela ikusi nuen. Gero finantzak egin nahi izan nituen, baina aukera hau izan nuen, proiektu baten bitartez zeure enpresa sortu ahal izateko aukera karrera honetan; klase arruntetara joatea baino erakargarriagoa da. **Berriz jaiota berdina ikasiko zenuke?**



N. URBIZU

Ez dakit berriz karrera hau aukeratu ote nukeen. Agian kaleko jendea, nire gurasoak ikusi adibidez, eta zioritsuak direla ikusten dut ikasi gabe ere. Ez dute etxera iritsi eta ikasten hasi behar. Barazetik bizi dira eta bai, lana da, bai-

na desberdina. Azkenean haiek dakiten guztia nik ez dakit. Gaur egun, hala ere, ikastea beharrezkoa dela iruditzen zait. Lotsatia izateari lehenago utziko nioke, hori bai. Kanpoan egoteak asko lagundu dit irekitzen.

**Hizkuntzak garrantzitsuak dira.** Frantzesia eta ingelesa espreski landu ditut. Orain Donostian ari naiz ingelesarekin (lagun batekin) eta frantzesia orain arte Tolosan aritu naiz ikasten, baina gaur egun ez dut lantzen jarraitzen.

**Ikasketa hauek bukatu ondoren zer egiteko asmoa duzu?**

Aitak esaten dit bera jubilatua eta oraindik ikasten ez jarraitzeko [barrez]. Ikasteari utzi egingo diot nire ustez, bukatu eta listo, eta lan munduan sartu nahi dut. Curriculum baten begiratu dudala iruditzen zait baina azkenean uste dut aurpegia izan behar dela: salmenta mundurako behintzat ausardia izan behar da. Nik horretarako ez dut uste asko balio dudunik...

**Asko sakrifikatu duzu?**

Parranda gutxiago egiten ditut. Adibidez, Gabonetako garaia gogorra da ikasten gaudenontzat. Erasmus egiten lau hilabetez egon nintzen Ingalaterran eta han parranda gehiago egin nituen hemen baino. Karrera ikasketen esperientziarik onena kanpora joatea izan da.

**Inoiz egin al duzu txuleta bat?**

Ez, ikara ematen dit gainera, oso urduri jartzen naiz. Aurpegian nabaritutako litzaidake. Ikastolan behin hitz bat idatzi nuen eskuan, eta zein ikara eskuari begiratzeko! Azkenean izerdiarekin borratu egin zitzaidan.



**E Elkarrizketa**

**IZASKUN JAUREGI** › Baserritarra



HITZA

# «Bedaio auzoko Gurbil Andi Gipuzkoako baserri handiena da»

**Tolosa** » 800m2 dituen eraikin hau sei etxebizitzetan banatua dago, bakoitzak bere ezaugarri propioak izanik.

**LEIRE GOROSTIDI**

Jauregitarren lau belaunaldi baino gehiago igaro dira Gipuzkoako baserri handienetik. Izaskun Jauregi Otamendi (Bedaio, 1969) ere Gurbil Andin hezitu da bere lau anai-arebekin batera. «Baserriko giro eta bizi estiloa asko aldatu dira azken hamarkadetan», dio Jauregik. **Sei familia bizi izan zarete baserrian.** Bai hala da. Gurbil Andi baserriak 800m2 ditu eta 6 etxebizitzetan banatua dago. Etxe bakoitzak bere izen propioa du. Gureak, Luxiane izena du eta besteek aldiz, Guardane, Etxezarreta, Luxene, Santione eta Santusene. Bedaioko baserri gehienak ere zatikatuak daude. Beste baserri handi batzutan familia bakarra bizi da eta kasu hori iruditzen zaizkit. **Zein da Gurbil Andik duen bereizgarria?** Dudarik gabe erdigunean duen patio irekia da ezaugarri esanguratsua. Baserria lauki itxurakoa da eta nik dakidala behintzat ez dago horrelako arkitektura duen besterik. Erdiko patioa, argia etxebizitzak guztietara sartzeko egin zen. Hortik dator teilatua ez edukitzearen kontua. Aipatzekoa da, sei etxebizitza egon arren lau etxetako bizi-

lagunek bakarrik dutela hona sartzeko aukera. Hasera batean lau bizitaxe bakarrik omen ziren. **Nola jakin zenuten baserri handiena zela?** Gurasoek izan ez zuten jakinmina semeek izan dugu. Entzuna genuen jende askoren ahotatik Gurbil Andi baserria Gipuzkoako handiena zela baina ez genuen hau baieztatzen zuen daturik. Gure kontu hasi genuen bilaketa eta honela baieztatu genuen hainbatek aurretik esandakoa, hau da, Gipuzkoako handiena dela. **Noiz eraiki zen baserria?** Hainbat artxibo, liburu arakatu ostean, 1545etik aurrera dago jasoa bere existentzia, Bedaioko auzoaren lehenengo idatziekin batera hain zuzen ere. Hala ere, honek ez du adierazten baserria urte hartan eraiki zenik. Ez da existitzen hori baieztatzen duen paperik. **Baial dago Gurbil Andiren parekorik?** Arkitekturari dagokionez nahiko bereziak diren beste bi baserri ere badaude Bedaion; Zugastibarrena eta Soroberri, hain zuzen ere. Hala ere ez dute gureak duen erdiko patioa. Hiru baserri hauen arkitekturak beste batzuen eraikuntzan eragin omen du.



L. GOROSTIDI

**Zer nolako banaketa du baserriak?** Famili bakoitzak bere bizitaxeari dagokion zatia du. Baserriari dagokion lurra ere banatuak daude. Belaunaldiz belaunaldi mantendu dira norbanakoaren lursailak. Baserri bakar bat izan arren bizitaxe bakoitzak bere idazki propioak ditu. **Baserriko bizitzan aldaketa asko eman dira azken berrogeita hamar urteotan.** Bai horrela da. Nik ez dut aldaketa gehiegirik nabaritu baina nire gurasoen belaunaldiak beste bizimodu batizan du. Haustura nabarmena eman da bi belaunaldien artean. Nire aita, 9 urterekin Azkarateko baserri batera bidali zuten morroi lanak egitera eta jana besterik ez

**Baserriak asteburuko bizitoki bezala funtzionatzen dute sarritan.**

**Geroz eta ume gutxiago aurki genitzake euskal baserrietan. Kopuruak ikaragarri murriztu dira.**

zioten ematen honen truke. Baserriko bizi-baldintza gorren ondorioz askok eta askok baserrietako lanak bigarren maila batean utzi behar izan dituzte beste lan batzuetan aritzeko. **Bedaioko baserriak nagusi bakar baten menpe egon dira.** Bai horrela da. Orain dela 30 urte erosi genuen Gurbil Andi baserria.

Bedaioko baserri guztiak jabe bakar baten menpe egon ziren orduartean. Trukea orain gutxiarte mantendutako tratua izan da nahiz eta arraroa xamarra iruditu. Hamar kilo babarrun erein eta eta hiru, nagusiarentzat ziren. Gaur egun, oraindik ere Bedaioko baserri bat jabe honen esku jarraitzen du. **Zer nolako zainketa behar du horrelako baserri batek?** Teilatua baldintza aproposetan mantentzea ezinbestekoa da. Sei sendi izanik, bakoitzak bere zatia konpontzen du. Orain artean behintzat ez dugu inolako arazorik izan. **Hurbiltzen al da jenderik baserria ikusteko asmoz?** Bai, bai, jende asko gerturatzen da Gurbil Andi baserriara. Askok liburuetan irakurri dutelako eta beste hainbatek Gipuzkoako baserri handiena dela entzun dutelako. Patioa ongi ikusi ahal izateko, barrutik alalatuera jakin batetik ikuskatu behar da eta honen ondorioz, bat baino gehiago etxeko sukaldetik eman ditugu patio alde-  
**Geroz eta zailagoa al da baserrietik bizitzea?** Zaila baino ezinezkoa esangonuke nik. Horretarako ganadu asko eduki behar da. Gure baserria handia izan arren, sei zatitan banatua dago eta ez du kopuru handiek in aritzeko aukerik ematen. **Azken urteetan zein aldaketa nabaritu da gehien?** Nire adin inguruko hogeitau hamar urteko garaian, aldiz, berrogei inguru ziren. Eta gaur egun, berri, bi ume bakarrik bizi dira baserrian.



14°  
8°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATS. EURIA  
BEROENA 15°  
HOTZENA 9°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendariak:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraledea:** 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Musika

■ **Tolosa.** Lanxustoren (Bartzelona) kontzertua Bonberenean 22:30ean.  
■ **Tolosa.** Ken 7 musika taldearen kontzertua hilaren 14an Leidor aretoan izango da. Sarrerak salgai daude 12 eurotan Leidorren bertan eta Kutxan (Servikutxa, Telekutxa eta [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)).

### Erakusketa

■ **Tolosa.** Afrikako arte eta artisautzaren erakusketa Kultur Etxean, Aita Zuriek antolatuta. Asteburuan izango da ikusgai.

### Deialdiak

■ **Villabona.** 56ko kintoak elkartuko dira bihar: 12:00etan meza Jesusen Bihotza parrokian hildakoan alde eta 14:30ean bazkaria Sagasti berri jabetxean.

### Irteerak

■ **Tolosa.** Candanchura eski irteera antolatuta dute abenduaren 28 eta 29rako. Eski alpinoa, iraupen eskia edo mendiko eskia egiteko aukera. Informazioa eta izen-ematea, 637 830380 eta 678 732579 telefonoetan. Antolatzailea: Oargi mendi elkarte eta Otsabi auzo elkarte.  
■ **Leaburu.** Abenduaren 13an Zumarragako Santa Luzia azokara joateko irteera antolatuta dute. Izen-ematea, Txaramako kultur osasun gunean eta udaletxean

### Ikastaroak

■ **Amasa.** Amasako Iturri-goxo jabetzeko Jokin Zabalak sukaldaritza ikastaroa emango du Zumbeltz elkartearen abenduaren 11, 13 eta 18an, 17:30etik 19:00etara. Izen-ematea, udaletxeko kultura saileko bulegoan edo 943 691655an.

### Zinema

■ **Tolosa.** Zine festa Leidor aretoan: helduentzat *El Orfanato*, *Un plan brillante*, *Tierra*, *Lucio* eta *Las 13 rosas*; haurrentzat *Martina* eta *xagutxoak* (3-6 urte), *Iraxkoen erregea* (7-10 urte), *Irabazle eta gal-tzaile* (10-14 urte), *Urtemuga festa* (3-6 urte).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.  
■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.



Babarrunak, aza, odolkia, mondejua, orkatza eta postrerako kafea pastekin izan zituzten. 30 bat lagun bildu ziren Zazpi-Iturri elkartearen. N. URBIZU

Herriko bazterrak garbitzeko aprobeztatu zuten amezketar batzuk atzoko goizeko eguna; Amezketako Gazte Taldearen urteurrenean garai bateko kontuak gogoratu zituzten bazkarian.

# Hamar urte horien omenez

NEREA URBIZU

**A**mezketako Gazte Taldeak 10 urte bete ditu aurten eta atzo hasi ziren ekitaldiekin. Bazkaria egin zuten herriaren alde lan egin ondoren (mendi aldeko sasiak kentzen, besteak beste). Zazpi-Iturri elkartearen 30 bat lagun bildu ziren, eta gazteek prestatutako babarrunak eta Guturtze Artolak sukaldatutako basahuntza jan zuten: bide batez, esan, bertan elkartu zirenek, «dena oso goxoa» zegoela adierazi zutela aho batez.

Mahaiaren inguruan bai gazteek eta baita Amezketara irai ki duten herritar batzuk kontu zaharrak

## » EGITARAUA

### Abenduak 14, ostirala

■ **20:30.** AHTren aurkako mobilizazioa eguna amalurraren defentsan. Denak berdez jantzita joatea eskatu dute. Bertso afaria izango da ondoren.  
■ **00:00.** Erromeria Unsain anaiekin.  
■ **Ondoren.** Karaokea.

### Abenduak 15, larunbata

■ **17:00.** AHTrik ez! manifestazio nazionalera joateko autobusa Arrasatera abiatuko da. Zerrendak tabernetan daude.

### Abenduak 22, larunbata

■ **19:00.** Triki poteoa.  
■ **Oharra.** Afaldu aurretik Gazte Taldeko kide izan diren guztien argazkia egingo dute plazan.  
■ **21:00.** Zahagi sagardoa.  
■ **23:00.** Kontzertuak. Goizaldean txokolatea eta jolasak.

### Abenduak 29, larunbata

■ **09:00.** Mendi buelta.  
■ **Ondoren.** Bazkaria, eta auto karabana Alegian.  
■ **Alegian.** Herri arteko poteoa. Gauean play-back lehiaketa.

gogoratu zituztela bertakoekin barrak eraginez. Izan zuten bai zer gogoratu...

### Iltuzean ere 10 urte horien omenez, kirola

Inderberriturik eta afaldu baino lehen areto futbol txapelketa egin zuten. Atzoko eguna bukatu bazuten ere, oraindik aurretik beste 4 egun gelditzen zaizkie aurretik. Datorren ostiralean, gaur zortzi, *Urrutiko intxaurrak 10!* izenarekin bataiatu dute eguna, eta AHTren aurkako mobilizazio eguna izango da. Bertso afaria antolatuta dute ordurako, eta ondoren, erromeria Unsain anaiekin, gehi karaokea.

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak